Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 30a, asteartea — 80 — Martes, a 30 de abril de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA

*544/2019 Foru Agindua, apirilaren 26koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartuko duten hauteskunde-batzordeetako kide eta laguntzaileentzako ordainsariei buruzkoa.*

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2019ko apirilaren 26an:

«Diputatu nagusiaren apirilaren 1eko 1/2019 Foru Dekretuaren bidez (apirilaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 63. zk.), Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeen deialdia egin zen: maiatzaren 26an izango direnak, toki-hauteskundeekin eta Europako Parlamenturako hauteskundeekin batera.

Hauteskunde horiei dagokienez, eta Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 22.1 artikuluak xedatutakoa betez, hauteskunde-prozesuen arauketa osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuak parte hartzen dutenentzako ordainsariak eta kalte-ordainak ezartzen ditu 6. artikuluan: horien artean, probintziako eta eskualdeko hauteskunde-batzordeetako kide eta horien zerbitzupeko langileentzakoak, nahiz Lehen Auzialdiko epaile eta bake-epaileentzakoak.

Hala, toki-hauteskundeak eta Europako Parlamenturako hauteskundeak deitzen dituen Estatuko Administrazioak 605/1999 Errege Dekretuaren 6.1.4 artikuluan jasotako kopuruak ordaintzen dizkie probintziako eta eskualdeko hauteskunde-batzordeetako kideei eta horien zerbitzupeko langileei: artikulu horren beraren 10. zenbakian aurreikusi igoera, administrazio publikoetako langileen ordainsarietarako urteko aurrekontuen legean onartzen dena, aplikatuta.

Alabaina, hirugarren hauteskunde-prozesu bat gehitzeak –Gipuzkoako Batzar Nagusietakoa– lana areagotzea dakar Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordearentzat, eta hark esleituta (2019ko apirilaren 5eko erabakia, apirilaren 9ko 68 zk. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa) hauteskunde horien ondorioetarako, hurrenez hurren, «Deba-Urola», «Bidasoa-Oiartzun» eta «Donostialdea», eta «Oria» barrutiak bere gain dituzten Bergarako, Donostiako eta Tolosako eskualdeko hauteskunde-batzordeentzat.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordain osagarri bat ordaindu behar die, Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituen administrazioa den aldetik. Ordain horren zenbatekoa Estatuko Administrazioak beste bi hauteskunde-prozesuengatik ordaindu behar dituen kopuruen heren bat izango da.

Halaber, 605/1999 Errege Dekretuaren 6. artikuluaren 5. eta 6. zenbakietan ezarritako eran, Estatuko Administrazioak probintziako eta eskualdeko hauteskunde-batzordeen laguntzaileek emandako aparteko zerbitzuak ordaintzen ditu, probintzia bakoitzean benetan eratzen diren mahai bakoitzeko kopuru bat oinarritzat hartuz. Arrazoi berarengatik, hain zuzen, langile horiei ere sari osagarri bat ordaindu behar zaie: benetan eratutako

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA Y COMUNICACIÓN CON LA SOCIEDAD

*Orden Foral 544/2019, de 26 de abril, sobre gratificaciones a miembros y personal colaborador de las juntas electorales, por su intervención en las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa.*

El diputado foral del Departamento ha dictado, con fecha 26 de abril de 2019, la siguiente orden:

«Mediante el Decreto Foral 1/2019, de 1 de abril, del diputado general (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 63, de 2 de abril), se convocaron las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa, que se celebrarán el próximo día 26 de mayo, coincidiendo con las elecciones locales y con las elecciones al Parlamento Europeo.

En relación con dichos comicios y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 22.2 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General (LOREG), el Real Decreto 605/1999, de 16 de abril, de regulación complementaria de los procesos electorales, establece en su artículo 6 las gratificaciones e indemnizaciones al personal participante, entre el que se encuentran las y los miembros de las juntas electorales provinciales y de zona y el personal a su servicio, y las y los jueces de Primera Instancia o de Paz.

Así, la Administración del Estado, que convoca las elecciones locales y al Parlamento Europeo, abona a las y los miembros y al personal al servicio de las juntas electorales provinciales y de zona las gratificaciones fijadas en el artículo 6.1.4.º del Real Decreto 605/1999, incrementadas en los términos previstos en el número 10 del mismo artículo; es decir, en la misma proporción que se apruebe en las leyes anuales de presupuestos para las retribuciones del personal al servicio de las administraciones públicas.

La adición de un tercer proceso electoral, el de las Juntas Generales de Gipuzkoa, supone un incremento de trabajo para las y los miembros de la Junta Electoral del Territorio Histórico, y de las juntas electorales de zona de Bergara, San Sebastián y Tolosa a las que aquélla, a efectos de dichas elecciones, ha asignado, respectivamente, las circunscripciones «Deba-Urola», «Bidasoa-Oiartzun» y «Donostialdea», y «Oria» (Acuerdo de 5 de abril de 2019, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 68 de 9 de abril).

Esta circunstancia obliga a una compensación complementaria a cargo de la Diputación Foral, administración convocante de las elecciones a Juntas Generales, cuya cuantía se estima adecuado fijar en la tercera parte de los importes que por los otros dos procesos electorales corresponde satisfacer a la Administración del Estado.

Asimismo, la Administración del Estado remunera, en la forma prevista en los números 5 y 6 del artículo 6 del Real Decreto 605/1999, los servicios extraordinarios prestados por el personal colaborador de las juntas electorales provinciales y de zona, en función de una cantidad por cada una de las mesas que efectivamente se constituyan en la respectiva provincia. Por idéntica razón, procede establecer una gratificación comple-

EK\CV GAO-I-2019-02734

mahai bakoitzari dagokion kopuruaren heren batekoa, kasu honetan ere; eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordea arduratuko da zenbateko hori irizpide objektiboen arabera banatzeaz.

Bukatzeko, 605/1999 Errege Dekretuaren 6.2. artikuluan aurreikusten denaren osagarri, honako ordaina ere onartu behar da: Lehen Auzialdiko epaileei eta bake-epaileei eman beharrekoa, mahaietatik datozen hauteskunde-dokumentazioaren gutun-azalak jasotzeagatik eta boto-kontaketa egin behar duten eskualdeko hauteskunde-batzordeetara (Bergara, Donostia eta Tolosakora) eramateagatik; hori guztia Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 101. artikuluaren 3. eta 5. zenbakietan xedatutakoari jarraikiz. Horrenbestez, epaile bakoitzak jaso beharreko ordaina 605/1999 Errege Dekretuaren 6.2. artikuluan aurreikusitako kopuruaren heren bat izango da, irizpide berari jarraitzea egoki iritzi denez.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da ezein hogeita lau udalerri eskualdeko bi hauteskunde-batzorde ezberdinei dagozkiela: toki-hauteskundeetarako eta Europako Parlamenturako hauteskundeetarako bata; eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako bestea. Beraz, lan hori egingo duten epaileen garraio-gastu handiagoak ordaindu behar dira.

Hori dela eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2.f) artikuluan eta Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 31ko 7/2017 Foru Dekretuak 1.1.e) artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan egingo dituzten lanak direla eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeko kideei ondorengo sariak ordainduko zaizkie, toki-hauteskundeengatik eta Europako Parlamenturako hauteskundeengatik Estatuko Administrazioak ordainduko dizkienen osagarri gisa:

— Lehendakaria: 1.269,90 euro.

— Idazkaria: 1.185,24 euro.

— Bokal judizialak: 541,82 euro.

— Hautesle Errolda Bulegoaren Gipuzkoako ordezkaria: 541,82 euro.

— Bokal ez judizialak: 304,77 euro.

*Bigarren.* Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan egingo dituzten lanak direla eta, Bergarako, Donostiako eta Tolosako eskualdeko hauteskunde-batzordeetako kideei ondorengo sariak ordainduko zaizkie, toki-hauteskundeengatik eta Europako Parlamenturako hauteskundeengatik Estatuko Administrazioak ordainduko dizkienen osagarri gisa:

— Lehendakaria: 1.185,24 euro.

— Idazkaria: 1.100,58 euro.

— Bokal judizialak: 507,96 euro.

— Bokal ez judizialak: 304,77 euro.

*Hirugarren.* Aurreko ataletan aipatzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea kargua hartzen den unean sortuko da; eta hauteskunde-batzordeek beren eginkizunak betetzen dituzten denbora guztirako izango da, hau da, eratzen direnetik legezko epea igaro delako beren agintaldia amaitzen den arte.

Kide horietakoren bat bere batzordearen legezko agintaldiak irauten duena baino denbora gutxiago egoten bada bere karguan, benetan egon den denborari proportzioz dagokion zenbatekoa bakarrik jasotzeko eskubidea izango du. Hauteskunde-

mentaria para este personal y destinar para ello un importe global equivalente a la tercera parte de aquella cantidad por cada mesa que se constituya, importe de cuya distribución habrá de encargarse la Junta Electoral del Territorio Histórico con arreglo a criterios que considere objetivos.

Finalmente, debe aprobarse también una compensación complementaria de la prevista en el número 2 del artículo 6 del Real Decreto 605/1999, para las y los jueces de Primera Instancia o de Paz por la recogida de los sobres de documentación electoral procedentes de las mesas y su traslado y entrega a las juntas electorales de zona de Bergara, San Sebastián y Tolosa que han de realizar el escrutinio; todo ello, de acuerdo con lo previsto en los números 3 y 5 del artículo 101 de la LOREG. A este respecto, para determinar el importe individual a percibir por cada juez, se considera adecuado seguir el mismo criterio de la tercera parte de la cantidad prevista en el artículo 6.2 del Real Decreto 605/1999.

En relación con esto último, ha de tenerse presente el hecho de que veinticuatro municipios corresponden a dos juntas electorales de zona distintas: una para las elecciones locales y al Parlamento Europeo; y otra para las elecciones a Juntas Generales. Por tanto, deben compensarse igualmente los mayores gastos de traslado de las y los jueces que realizarán esa labor en esos municipios.

En su virtud, en uso de las atribuciones que le confieren el artículo 40.2.f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el artículo 1.1.e) del Decreto Foral 7/2017, de 31 de enero, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, este diputado foral

RESUELVE

*Primero.* Las y los miembros de la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa percibirán de la Diputación Foral las siguientes gratificaciones, por el desempeño de sus funciones en las elecciones a las Juntas Generales y como complementarias de las que les abonará la Administración del Estado por las elecciones locales y al Parlamento Europeo:

— Presidencia: 1.269,90 euros.

— Secretaría: 1.185,24 euros.

— Vocales judiciales: 541,82 euros.

— Delegado de Gipuzkoa de la Oficina del Censo Electoral: 541,82 euros.

— Vocales no judiciales: 304,77 euros.

*Segundo.* Los y las miembros de las juntas electorales de zona de Bergara, San Sebastián y Tolosa percibirán de la Diputación Foral las siguientes gratificaciones, por el desempeño de sus funciones en las elecciones a las Juntas Generales y como complementarias de las que les abonará la Administración del Estado por las elecciones locales y al Parlamento Europeo:

— Presidencia: 1.185,24 euros.

— Secretaría: 1.100,58 euros.

— Vocales judiciales: 507,96 euros.

— Vocales no judiciales: 304,77 euros.

*Tercero.* El derecho a la percepción de las gratificaciones señaladas en los apartados anteriores nacerá desde el momento en que se tome posesión del cargo correspondiente, y se entiende referido a la totalidad del tiempo en el que las respectivas juntas electorales cumplan sus funciones, desde su constitución hasta que concluyan su mandato por expiración del plazo legal.

En el supuesto de que el desempeño del cargo de alguno de sus miembros sea inferior al mandato legal de la junta respectiva, tendrá derecho exclusivamente a una cantidad proporcional al tiempo efectivo de desempeño del cargo. En el caso de

EK\CV GAO-I-2019-02734

batzorderen bateko kide bat batzorde berean ordainsari desberdineko kargu batean baino gehiagotan aritzen bada, kargu bakoitzean egondako denborari dagozkion proportziozko zatiak kobratuko ditu.

*Laugarren.* Lurraldean eratzen den hauteskunde-mahai bakoitzeko 20,32 euroko zenbatekoa ezartzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeko, eta Bergara, Donostia eta Tolosako eskualdeko hauteskunde-batzordeetako pertsonal laguntzaileek Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan egingo duten aparteko lana ordaintzeko; zenbateko hori Estatuko Administrazioak toki-hauteskundeengatik eta Europako Parlamenturako hauteskundeengatik ordainduko dizkien ordainsarien osagarria izango da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak kontzeptu honi dagokion zenbatekoa aipatutako hauteskunde-batzordeen artean banatuko du, irizpide objektiboen arabera.

*Bosgarren.* Batzar Nagusietarako hauteskundeetan eskualdeko hauteskunde-batzorderen baten egoitza izango ez diren Gipuzkoako udalerrietako bake-epaileek eta lehen auzialdikoek 21,03 eurona jasoko dituzte: mahaietan hauteskundeei buruzko dokumentazioaren gutun-azalak jaso eta boto-kontaketa egin behar duten eskualdeko hauteskunde-batzordeetara eramateagatik.

*Seigarren.* 1.347,68 euroko zenbateko bat ezartzen da, epaileen joan-etorri gastu handiagoak ordaintzeko: eskualdeko bi hauteskunde-batzorde ezberdinei –bat toki-hauteskundeetarako eta Europako Parlamenturako hauteskundeetarako; eta bestea Batzar Nagusietarako– dagozkien 24 udalerrietako epaileei.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak banatuko du zenbateko hori irizpide objektiboen arabera.

*Zazpigarren.* Aurreko ataletan adierazitako diru kopuruen bidez ordainduta geratuko dira bai hauteskunde-prozesuaren garapen arrunta; baita, kasua balitz, hauteskundeen errepikapena edo hauteskunde-prozesuaren ondorioz gerta litekeen beste edozein bozketa-ekintza ere. Beraz, kasu horietan ez da ordainketa berririk egingo.

*Zortzigarren.* Foru agindu honetan aipatzen diren zenbatekoak aurrekontuko 0310.100.227.19.00.2019 kontu sailaren kargura ordainduko dira, hauteskunde-batzordeen agintaldia amaitu ondoren.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2019ko apirilaren 26a.—Juan José de Pedro Alonso, Departamentuko idazkari teknikoa. (2734)

que una o un miembro de una junta electoral desempeñe cargos con distinta remuneración en la misma junta, percibirá la parte proporcional que le corresponda según el tiempo de permanencia en cada cargo.

*Cuarto.* Se establece la cantidad de 20,32 euros por cada mesa electoral que efectivamente se constituya en el territorio, para remunerar los servicios extraordinarios prestados por el personal colaborador de la Junta Electoral del Territorio Histórico, y de las juntas electorales de zona de Bergara, San Sebastián y Tolosa en las elecciones a las Juntas Generales de Gipuzkoa; esta cantidad será complementaria de la remuneración que por los servicios relacionados con las elecciones locales y al Parlamento Europeo abonará la Administración del Estado a dicho personal.

La Junta Electoral del Territorio Histórico distribuirá el importe resultante entre las juntas electorales mencionadas, en función de los criterios que considere objetivos.

*Quinto.* Las y los jueces de Primera Instancia y de Paz de los municipios de Gipuzkoa que no son sede de una junta electoral de zona en las elecciones a las Juntas Generales percibirán 21,03 euros cada una y uno de ellos, por la recogida de los sobres de documentación electoral procedentes de las mesas y su traslado y entrega a las juntas electorales de zona que han de realizar el escrutinio.

*Sexto.* Se establece una cantidad de 1.347,68 euros para compensar los mayores gastos de traslado de las y los jueces de los 24 municipios que corresponden a dos juntas electorales de zona distintas –una para las elecciones locales y al Parlamento Europeo; y otra para las elecciones a las Juntas Generales–.

La Junta Electoral del Territorio Histórico distribuirá dicha cantidad, en función de los criterios que considere objetivos.

*Séptimo.* Los importes establecidos en los apartados anteriores sufragarán tanto el desarrollo ordinario del proceso electoral como la repetición de elecciones o actos de votación que se originen derivados de la celebración de aquél, sin que, por tanto, en estos supuestos deba efectuarse ninguna nueva asignación.

*Octavo.* Las cantidades a que se refiere la presente orden foral se abonarán con cargo a la partida 0310.100.227.19.00.2019, una vez que haya concluido el mandato de las juntas electorales.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 26 de abril de 2019.—El secretario técnico del Departamento, Juan José de Pedro Alonso. (2734)

EK\CV GAO-I-2019-02734